

B13

Ene laztan çuri ederra...

Gaztelaniaz *quintilla* deitzen den ahapaldi mota da: bost bertso-lerro oktosilabo, abaab errimategiturarekin. Poema honetatik kanpo, eskuizkribuko euskarazko poemetan, B16 (*Egun batean nendorrela...*) ahapaldi-segida luzean baino ez dugu aurkitu ahapaldi mota hau, eta B7 (*Maior que mi sufrimiento...*) gaztelaniazkoan, halako biz osaturiko hamarreko edo dezimak daude (gogoratu B7 ez dela Lazarragak sortua, Lazarragak kopiatua baino).

Hala ahapaldi motagatik nola tintagatik eta idazmoldeagatik, iduri luke ahapaldi hau erlazonaturik dagoela B16rekin (eskuizkribua zabaltzean, parez pare geratzen dira B16ren hasiera, 1181r orrialdean, eta B13, 1180v orrialdean), baina, edukiari begiratuta, ez dugu aurkitu B13ko ahapaldia B16 ahapaldi-segida luzean, ezagutzen dugun zatian behintzat, txertatzeko modurik; kontuan izan behar da, dena den, B16ko azken ahapaldia amaitu gabe dagoenez, ziur dakigula poema amaitu gabe dagoela, eta ez dela ezinezkoa, hortaz, B13 izatea B16n falta den zatiko ahapaldi bat.

Edukia eta esanahia gardenak dira: zuzenean hitz egiten dio neska maiteari, goraipamenezko epitetoekin, eta bere ohera gonbidatzen du.

<1180v> Ene laztan¹ çuri ederra,²
flordelisea³ çara çu.
Arren, çatozque⁴ ene oera,

¹ *Ene laztan*: 1180v orrialdeko beste leku batzuetan ere hasi da, nonbait, lerro hauek idazten: *a ene laztan* dakar, B13ren tinta eta idazmolde berarekin, Joan Perez Lazarragakoaren errubrika erdi-eginarekin batera, A13: 4-5 lerroartean. Eta, A13ko testu nagusiaren eta alboko B15 testuaren arteko tartean, beste hau: *Enela / lazta / nna / Andra / ndrata / tan*. Luma-saioen itxura dute.

² *Ene laztan çuri ederra*: Eskuizkribuko beste bi lekutan ere badago bertso-lerro hau: *Ene lastan çuri ederra* (B28: 11 eta B33: 5).

³ *flordelisea*: Eskuizkribuan bost bider agertzen da, hitz eder gisa dama edo dontzeilei egokitua: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 25, A7: 61, B13: 2. Euskaraz ez dugu beste inon aurkitu *flor de lis* hala erabilia, baina bai gaztelaniaz (*apud CORDE*): “sagrada María, blanca flor de lis, clara como el día” (Izengabea, *Cancionero de Juan Fernández de Íxar*, 1420-1520), “de los vientos tramuntana, / de flores la flor de lis, / de las colores la grana, / de las damas Beatriz” (Juan de Simoneda, *Cancionero llamado Sarao de amor*, 1561), “diamantes no son tales, ni rubís, floresta de flor de lis” (Fray Ambrosio Montesino, *Cancionero*, 1508), “más lindas que flor de lis” (*ibidem*) . Gogoan izan, bestalde, *Orlando Furioso*n (Lazarragak Jerónimo de Urrearen 1549ko itzulpena ezagutu bide zuen) Brandimarteren maitearen izena dela *Flordelís*.

beti ce eguidaçu guerra,
borondateric badoçu.

5

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Ahapaldi osoa testu nagusiaren azpian idatzita dago, B14 eta B16ren tinta berarekin eta idazmolde berean. 2 çara] esk. *cara*. 3 oera] *-a* beste zerbaiten gainean idatzita dago.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B13 – Ene laztan çuri ederra...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

⁴ *çatozque*: ‘zatoz, etor zaitez (geroan)’; *etorri* aditzaren geroaldiko aginterazko forma trinkoa da. Aginterazko adizkia *-ke* atzizkiarekin osatzean, aginduaren betetzea geroan kokatzen da, solas unetik kanpo. Geroaldiko agintera oso ohikoa da *Refranes y Sentencias* bizkaierazko atsotitzen bilduman (*çe eyquec maurtuti hoeneâ, eder eztanic calean RS 36, Gach çe erexqueoc yñori, ta emac vereâ edoceyni RS 312*), eta aztergai dugun Lazarragaren testuan: *ce eucaiqueçu* (A27a: 24), *sinis eçaqueçu / ene eguia* (B9: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B12: 11-12) eta *arren, aguir çaytesq[ue]* (B28: 3). Bizkitartean, ez dirudi soilik mendebaldeko euskararen ezaugarria izan denik, gipuzkera eta lapurtera zaharrean (Etxeberri Ziburukoa eta Etxeberri Sarakoa) ere biltzen baitira gisa horretako formak.